

ATXILOKETAK. Berriz delitua egin dutela dio fiskalak, Ekin-en jarraitzen dutela esanez

Guardia Zibilak hiru lagun atxilotu ditu Bizkaian manifestaziora deitzeagatik

Nieto, Asensio eta Balantzategi behin-behineko askatasunean zeuden 18/98 sumarioan, Ekinen atalean auzipetuta baitaude

Erredakzioa | BILBO

Guardia Zibilak hiru pertsona atxilotu zituen atzo Bizkaian Auzitegi Nazionalak aginduta. Enrique Molina fiskalak presoen aldeko manifestazioak antolatzea leporatzen die, eta horregatik «berriz delitua egin» dutela dio. Teresa Palacios epaileak gaur goizean erabakiko du Ruben Nieto, Javier Balantzategi eta Paul Asensio behin-behinekoz aske utziko dituen edo espetxean sartuko.

Hiru atxilotuak auzipetuta daude 18/98 sumarioan Ekin-

en atalean. Horren karira atxilotu zituzten 2000ko irailaren 13an Garzonek Ekinen aurka agindutako operazioan. Gerora hirurak aske geratu ziren, bermea jarrita: Nieto eta Balantzategi iazko apirilean, 6.000 euroko bermearekin eta Asensio iazko abenduan, 30.000 euroko fidantza ordaindu ondoren. Auzitegi Nazionaleko Penaleko aretoak utzi zituen aske. ETA eta Ekinen arteko harremana frogatzen zuen agiririk ez zegoela argudiatu zuen kasu batean, eta bestean, Ekin kale erasoan erantzule egiten zuten frogak

BALDINTZAPEAN

Hiru atxilotuak aske geratu ziren iaz, Garzon epaileak Ekinen aurka agindutako operazioan atxilo eraman ondoren

kasu horregatik kartzelan zeuden lagunen espetxealdiari eusteko ahulegiak zirela iritzi zion epaimahaiak.

Guardia Zibilak 10:00etan atxilotu zituen Nieto eta Balan-

tzategi; Asensio, berriz, arratsaldean, Algortan bere etxean.

Casanovaren atxilotetari lotuta

Atxilotetok Iker Casanova gaztearen atxilotetarekin lotura dutela adierazi zuten berri agentziek. Casanova irailaren 13an atxilotu zuten «ETAren egituraren ustezko kide» izateagatik eta gero kartzelatu egin zuten. Mobilizazioak eta manifestazioak antolatzea egotzi zioten. Casanova Ekinekin lotu zuen Garzonek, eta atzo atxilotutako hiru lagunek «ekintza deliktibo horiek egiten laguntzen» ziotela adierazi zuten.

Delitu zantzuak ikusita, epaileak Zigor Arloko atala jakinarenean jarri zuen «berriz delitua» egiten ari zirela esanez. Fiskalak hiruren askatasun egoera atzera bota eta atxilotzea eskatu zuen.

Askatasunak frogarik gabe ezker abertzaleko kideen atxiloteta salatu zuen. «Beste behin, argi geratu da, Euskal Herrian ez dagoela adierazpen askatasunik ezta elkartzeko politikorako askatasunik ere».

EHNA

Agiriak balio ofizialik ez duela gogorazi dio Jaurlaritzak euskal diasporari

Erredakzioa | BILBO

Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi Iñaki Agirrek mezu elektronikoak bidali ditu diasporako euskal etxetara EHNA agiriak «inolakako balio ofizialik» ez duela gogorazteko.

Agirrek «iruzurtzat» jotzen du agiri hori lortzeko 12 euro edo dolar eskatzea eta «arriskutsua» deritzo sinadura bat agiri zuri batean eskatzea, gero edozertarako erabili ahal delako.

Udalbiltza Batzorde Eragilea aspalditik ari da diasporako komunitateari EHNA tramitatzeke gonbita luzatzen Internet bidez, eta horretarako informazioa bidaltzen.

EUSKAL PRESOKA. Euskal Herrian egongo den egunetan zenbait bilera egingo ditu, gaur, Udalbiltzaren Batzorde Eragilearekin

Italiako Berdeen diputatu bat presoen elkarretaratzean

Erredakzioa | DONOSTIA

Italiako Berdeen taldeko diputatu bat, Mauro Bulgarelli Euskal Herrian da egunotan. Atzo Etxerat elkarteke ordezkariekin bildu zen arratsaldean, eta ondoren, elkarte horrek ostiralero egiten dituen presoen aldeko karteladan parte hartu zuen Donostian. Kartelada hasi aurretik Bulgarellik adierazpen batzuk egin zituen.

Bulgarellik adierazi zuen, ez duela ulertzen zergatik ez diren betetzen Espetxe Araudiko zenbait lege. Hala, zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presok zergatik ez dituzten aske uzten, gaixotasun sendae-

zinak dituztenak zergatik ez dauden aske, edota presok Euskal Herrian egotea zergatik ez den betetzen galdegin zuen.

Ildo beretik, eskaera horiek bete daitezela eskatu zuen. Etxerat elkarte esker oneko agertu zen Bulgarellik eginiko hitzengatik.

Donostiakoaz gain, ostiralero moduan egin ziren karteladak Euskal Herrian. Gasteizen 650 lagun bildu ziren, Oreretan 300, Iruñean 250, Getarian 35, Bergaran 60 eta Aulestin 27.

Bulgarellik, Euskal Herrian den bitartean beste zenbait bilera ere egingo ditu. Gaur, Udalbiltzako Batzorde Eragileko ordezkari batekin batzartuko da.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Mauro Bulgarelli Italiako Berdeen taldeko diputatua, argazkiaren eskuin aldean, atzoko karteladan.



Hautes
kunde
sindikalak

Mitina eta manifestazioa

**Gaur. Donostia
arratsaldeko 5etan
Anoetako polikiroldegian**

Jeronimo Prieto, Arlette Apraiz, Jon Idigoras eta Rafa Diez

LABekin
erabaki